

Langile humanitarioen sexu-jokabideari buruzko arauak

Langile humanitarioen **sexu-jokabidea onartezina bada**, horiek **zigor edo kalera ditzake** erakundeak. Langile humanitarioek bete beharreko arauak:

- Langile humanitarioek **debehatuta dute sexu-harremanak izatea 18 urte baino gutxiagoko inorekin, nahiz eta haren herrialdean legezkoa izan**. Ez du balioko pertsonaren benetako adina ezagutzen ez zuela esateak.
- Langile humanitarioek **debehatuta dute sexu-harremanen truke dirua, lana, elikagaiak, botikak eta bestelako produktuak edo zerbitzuak eskaintzea**, behartsuei laguntzera zuzendutako ondasunak eta zerbitzuak barne. Debehatuta dute horiek agintzea inor umiliatzearen edo esplotatzearen truke. Prostituta batekin sexu-harremanak izatearen truke dirua ordaintzea edo eskaintzea ere debehatuta dago.
- Langile humanitarioek eragina dute elikagaiak, botikak eta bestelako produktuak jasotzen dituzten pertsonengan. Horrek boterea ematen die. Ondorioz, erakunde humanitarioek **gomendatzen diete langileei sexu-harremanik ez izatea behar humanitarioak dituen inorekin**. Sexu-harremanak izaten badituzte, ekintza humanitarioak ez dira horren zintzo eta sinesgarriak izango.
- Langile humanitario bat **kezkatuta badago edo susmatzen badu** bere erakundeko edo beste laguntza-erakunde bateko inor langile humanitarioen sexu-jardunbideari buruzko arauak hausten ari dela, haren berri eman **behar** du, bere erakundeak horretarako ezarritako **prozeduraren** bitartez.
- Langile humanitarioek onartezinak diren sexu-jardunbideak saihestuko dituen eta langileek **jokabide-kodea** errespetatzea sustatzen duen lan-ingurunea **sortu eta mantendu behar dute**. **Kudeatzaile guztien** ardura da ingurune hori mantenduko duten sistemak garatzea eta horiei babesa ematea.

Hemen daude erabilgarri IASC erakundearen sexu-esplotazio eta -abusuari buruzko printzipioak:

http://www.pseataaskforce.org/uploads/tools/sixcoreprinciplesrelatingtosea_iasc_english.doc.

Bertsio hau hizkuntza bakarrean dago erabilgarri eta IASC erakundearen herrialde behartsuetako biztanleen ardurarako eta sexu-esplotazio eta -abusuaren aurkako babeserako ekintza-taldearen eta Mugarik Gabeko Itzultzaileak erakundearen artean garatu zuten.